



Arartekoaren 2014R-525-12 ebazpena, 2014ko ekainaren 3koa. Horren bidez, Busturiako Udalarari gomendatzen zaio dagozkion neurriak hartzeko, (...) tabernak eragiten dituen eragozpenak saihesteko, eta jarduera horri eskatzeko, ahalik eta lasterren, ingurumenaren arloko legedia betetzeko.

### Aurrekariak

1. Busturiako herritar batek sustatutako kexa-idatzia jaso zen erakunde honetan. Idatzi horretan, herritarrak salatzen zuen Busturiako (...) auzoan dagoen (...) tabernaren funtzionamendu irregularrak eragindako zaraten eta bibrazioen eragozpen larriak pairatzen dituela bere etxebizitzak.

Zehazki, gure irizpenean jarri ditu bere etxebizitzak **lokaleko musikaren ozentasun handiak** eragindako zaratengatik eta bibrazioengatik pairatzen dituen eragozpen jasanezinak. Horrez gainera, adierazi du taberna goizaldeko ordu txikietara arte irekita egoten dela, eta horren ondorioz, behin eta berriz urratzen duela itxiera-ordutegia.

Azkenik, adierazi du hainbat alditan joan dela Busturiako Udalera, eta ez duela lortu pairatzen duen arazo larria konpontzeko irtenbide egoki bakar bat ere ematea.

2. Erreklamazio honi dagokion izapidea emateko, Arartekoaren erakundeak kudeaketa ugari egin ditu Busturiako Udalarekin, planteatutako arazoari buruzko beharrezko datu guztiak biltzeko, bai eta aipatu jardueraren administrazio- eta hirigintza-egoera egiaztatzeko.

Kontsistorioak nahiz kexaren sustatzaileak emandako dokumentazioa aztertuta, alderdi ugari egiaztatu ditugu aipatu jarduerari buruz. Jarraian, alderdi horiek azalduko ditugu:

3. Lehenik eta behin, azpimarratu behar da 1983. urtetik aurrera funtzionatzen ari den jarduera bat dela. Hala, 1983ko ekainaren 1ean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak **aipatu jarduera kalifikatu eta neurri zuzentzaileak ezarri zituen.**
4. Hala ere, 2004ko abuztuaren 10ean, auzokoek lehen erreklamazioak aurkeztu zituzten kontsistorioan, jarduerak eragindako zaraten eragozpenak salatuz eta jardueraren legeztatze-egoerari buruzko informazioa eskatuz.

Erreklamazio horien ondorioz, 2004ko irailaren 9an, Busturiako Udalak Bizkaiko Ingurumen Sailari eskatu zion, egiaztatzeko ea tabernak legez ezarritako maila akustikoak betetzen zituen.



5. Foru-erakundeak, 2005eko urtarrilaren 26an, txosten bat eman zuen, eta hau azpimarratu zuen bertan:

*"La actividad incumple las medidas correctoras número dos y cuatro, impuestas el 1 de junio de 1983 por la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, relativas a los niveles de emisión acústica y evacuación de humos respectivamente, dado que el nivel acústico medido en la vivienda de (...) superan los niveles máximos establecidos en la medida correctora segunda, y la cocina de la actividad carece de la preceptiva conducción de humos hasta la cubierta a 2m. por encima del alero exigida por la medida correctora.*

*Asimismo, incumple con lo dispuesto en el Decreto 171/1985 de Gobierno Vasco, ya que además de superar los límites de 30 dB(A) del nivel continuo LEQ, carece de un limitador de emisión a 75 dB(A) con los aparatos de radio, televisión e hilo musical y posee un aparato musical no autorizado".*

6. Lehen azaldutakoaren arabera, udal gobernu-batzarrak, 2005eko otsailaren 17ko ebazpenaren bidez, jardueraren titularrari eskatu zion, 15 eguneko epean, arauz kanpo funtzionatzen ari ziren soinu-tresnak kentzeko eta behar bezala baimendutako gainerako soinu-iturrietan derrigorrezko mugatzailea jartzeko, bere instalazioa derrigorrezkoa baitzen.

Halaber, eskatu zion kez husteko sistema berri bat jartzeko hurrengo 6 hilabeteetan.

7. Azkenik, jardueraren titularrari ohartarazi zitzaion, **hilabete bateko gehieneko epean**, Udalarari jakinarazi behar ziola, hala bazegokian, zer erabaki hartuko zuen, **gaueko ordutegian sortutako gehiegizko emisio akustikoa zuzentzeko**, eta bi aukera eskaini zizkion horretarako: Batetik, jardueraren ordutegia murriztea, eguneko ordutegian soilik funtziona zezan, gehienez 22:00etara arte. Bestetik, lokalaren isolamendu akustikoaren maila sendotzea, indarreko araudian ezarritako gehieneko soinu-mailak betetzen zirela bermatzeko, eta horrenbestez, gaueko ordutegian ireki ahal izateko.

Lehen emandako hilabete bateko epea igaro ondoren, eta jardueraren funtzionamenduaren irregulartasunengatik aurkeztutako beste salaketa batzuk zirela eta, Busturiako Udalak jardueraren arduradunari berriz ere gogorarazi zion lehen eskatutakoa ahalik eta azkarren betetzeko.

8. Hala ere, 2005eko martxoaren 8an, jardueraren titularrak idatzi bat aurkeztu zuen, non eskatu zuen Udaleko teknikariek **lokalean derrigorrezko mugatzaileak instalatzeko**.

Udalak, bere aldetik, kontsulta hori egin zion foru-erakundeari. Foru-erakundeak berretsi zion, araudiak ezartzen duenaren arabera, lokalaren jabeak edo errentariak instalatu behar zituela derrigorrezko mugatzaileak, eta



tokiko erakundeek egiaztatu behar zutela ea egoki instalatuta zeuden eta kontrolatu behar zutela ondo funtzionatzen zuten ala ez. Horrenbestez, Busturiako Udalak jardueraren arduradunei berriz adierazi zien beraiek instalatu behar zituztela mugatzaileak ahalik eta lasterren.

9. 2005eko ekainaren 21ean, jardueraren titularrak txosten tekniko bat aurkeztu zuen. Txosten tekniko horretan, dirudienaren arabera, lehen eskatutako neurri zuzentzaileak bete izana justifikatu zuen.

**Txosten hori ikusita, tokiko gobernu-batzarrak, 2005eko irailaren 22an, iritzi zuen eskatutako ia betekizun tekniko guztiak bete zirela, gaueko ordutegian zarata igortzearena izan ezik.**

Hori dela eta, Udalak derrigortu zuen gaueko ordutegian lokala ixtera, dagozkion neurri zuzentzaileak hartzen ez zituzten bitartean, aurreko ebazpenean aipatu zutenaren arabera.

10. 2005eko urriaren 6an, auzokoek Udalari berriz eskatu zioten, jarduerak sortutako aireko zarataren beste neurketa bat egiteko, bai eta auzokoen etxebizitzetan ere. Izan ere, iritzi zuten ordura arte hartutako neurriak ez zirela nahikoak izan, ezta jarduerak egunez funtzionatzeko ere.
11. Kaltetutako auzokoek helarazitako gogoeten arabera, tokiko gobernu-batzarrak, 2005eko urriaren 27an, lokalaren jabetza berriz ere gogorarazi zion isolamendu akustikoa sendotu behar zuela, lokala gaueko ordutegian berriz irekitzen hasi ahal izateko.

Horretarako, beharrezkoa zen proiektu tekniko bat aurkeztea, lokalak indarreko araudian eskatutako betekizunak betetzen zituela bermatuko zuena.

12. 2006ko urtarrilean, jardueraren titularrak lehen eskatutako proiektu teknikoa aurkeztu zuen, jarduera legedira egokitze eta lokala gaueko ordutegian berriz ireki ahal izateko.
13. Proiektu hori aurkeztu ondoren, 2006ko otsailaren 9ko udal-ebazpenaren bidez, adierazi zitzaion proiektua, alde batetik, foru-erakundera bidaliko zela bertan balora zezaten, eta bestetik, auzokoei proiektu horren berri eman eta aurkeztuko zitzaizela, hala bazegokion, auzokoek egokitzat jotzen zituzten alegazioak egin ahal izateko.

Edonola ere, azpimarratu behar da kaltetutako auzokoek nabarmentzen dutela jarduerak oraindik eragozpenak sortzen dituela, ziurtatuz hartutako neurriek ez dituztela inolaz ere konpondu pairatzen dituzten kalte larriak.

14. Hala ere, 2006ko martxoaren 16an, lokalaren titular berriak idatzi bat aurkeztu zuen Busturiako Udalean. Idatzi horretan, adierazi zuen jakin nahi



zuela ea indarrean zegoen lehen ezarritako ordutegi-murrizketa, aurkeztutako proiektu berriaren arabera.

Egun horretan bertan, tokiko gobernu-batzarrak hau jakinarazi zion: nahiz eta beharrezkoa izan foru-erakundeak proiektu tekniko hori jardueraren funtzionamendu egokia bermatzeko nahikoa den berrestea, **behin-behinerako egokitzat jo zen proiektua eta, horrenbestez, jarduerak berriz ere gaueko ordutegian funtzionatzeko baimena izango zuen.**

Hala ere, 2006ko apirilaren 3ra arte, Busturiako Udalak ez zion bidali Bizkaiko Foru Aldundiari proiektu teknikoaren kopiarik.

Edonola ere, une horretatik aurrera, jarduerak gaueko ordutegian funtzionatzeko baimena eman zen, nahiz eta auzokoek erreklamazioak etengabe aurkeztu.

15. Bizkaiko Foru Aldundiak, **maiatzaren 31ko 1303/2006 Foru Aginduaren bidez,** ondorioztatu zuen aurkeztutako proiektu teknikoan adierazitako betekizunek ez zituztela betetzen 171/1986 Dekretuan ezarritako aginduak, eta era berean, ez zela errespetatu 3/1998 Legean, otsailaren 27koan, Euskal Herriko ingurunea babesteko lege orokorrean, jarduera mota horietarako aurreikusitako prozedura.

*Txostenean adierazten zenaren arabera, "la diputación foral considera conveniente la ejecución de obras o reformas adicionales pertinentes para corregir las deficiencias detectadas en el sistema de ventilación así como para evitar problemas de ruidos y contaminación acústica Todo ello con el fin de cumplir los preceptos establecidos en el decreto 171/1985, de 11 de junio. Por ello, las medidas correctoras impuestas se limitan a cumplir con los requisitos exigidos en dicho precepto.*

*Medida 8ª. Para garantizar un adecuado aislamiento del ruido aéreo generado en el local el índice de aislamiento global a ruido rosa en dB(2) calculado a partir de la curva de aislamiento entre 100 Hz y 5 KHz será como mínimo de 65 dB(A) respecto de las viviendas próximas.*

*Medida 11ª. En cualquier caso no se superarán los 40 dB(A) hasta las 22 horas y los 30 dB(A) hasta las 8 de la mañana en nivel continuo equivalente Leq, en 1 minuto, ni los 45 y 35 dB(A) en valores máximos en punta en los dormitorios, cocinas y salas de estar de las viviendas próximas a partir de las 8 y 22 horas a partir de las 8 y 22 horas respectivamente, sin perjuicio de la normativa municipal específica existente. Del mismo modo en los locales no se superarán los citados valores para el horario nocturno."*

16. Neurri horiek hartzeko epea igaro ondoren, eskatutako kontrolak egiteko beharrezko baliabide teknikoak ez zituenez, Busturiako Udalak foru-aldundiari laguntza eskatu zion berriz, lehen eskatutakoa bete zen egiaztatzeko.



2007ko uztailaren 17an egindako ikuskatzea kontuan izanda, egiaztatu zen **funtzionatzen ari zen soinu-tresna bakarra telebista zela**, eta horrenbestez, ezinezkoa zela kaltetutako etxebizitzan iritsitako soinu-mailak gainditzeko behar ziren (la) 75 dB-raino iristea. Edonola ere, komenigarritzat jo zen lokalaren isolamendu-maila egiaztatzea, aurreko foru-txostena zenbateraino betetzen zen ziurtatzeko.

Horrenbestez, 2006ko azaroaren 30ean, neurketa egin zen, eta (la) 53 dB-ko isolamendu-indizeko emaitza lortu zen lokaleko aireko zaratarekiko. Oso emaitza urria izan zen, aurreko foru-txostenean eskatutako (la) 65 dB-ekin alderatuta. Hala ere, neurketak egin ziren, hainbat igorlek sortutako zarataren soinu-mailak zenbaterainokoak ziren jakiteko, besteak beste: hondoko zaratek, telebistak, eta aulkiak eta mahaia herrestan eramateak.

17. Proba horietan lortutako emaitzak kontuan izanda, Bizkaiko Foru Aldundiak 2007ko otsailaren 7ko txostenean ondorioztatu zuen jarduerak ez **zuela betetzen maiatzaren 31ko aurreko 1303/2006 Foru Aginduan ezarritako neurri zuzentzailea**. Halaber, ez zuen betetzen **11. neurri zuzentzailea, immisio-mailei buruzkoa, aulkiak eta mahaia herrestan eramaten zituenean**.

Edonola ere, immisioko soinu-mailek ez zituzten hondoko zaratak gainditzen ondoko etxebizitzetan.

Horrenbestez, 2007ko apirilaren 3ko udal-ebazpenaren bidez, hau adierazi zen: *"...visto el informe emitido por el Departamento de Medio Ambiente de la DFB, conceder un plazo para que corrija las deficiencias detectadas y realice las obras complementarias de insonorización necesarias para alcanzar el aislamiento de 65 dB(A), la junta de gobierno local, por unanimidad, acordó concederle un plazo de dos meses para realizar dichas obras."*

18. Hala ere, 2007ko maiatzaren 9an, **jardueraren titular berriak** (2007ko irailaren 6ko data duen hurrengo aurrekarian aipatzen dugun foru-txostenak berariaz adierazten duenaren arabera) errekurtsioa aurkeztu zuen alkatetzaren aurreko ebazpenaren aurka, iritzi baitzuen 171/1985 Dekretuak, ekainaren 11koak, eskatutako soinu-maila betetzen zuela (...) tabernak. Horrenbestez, ez zuen beharrezkotzat jotzen lokalaren isolamendu akustikoa sendotzea.

Hori dela eta, eskatu zuen **ez aintzat hartzeko aurreko 1303/2006 Foru Aginduko 8. neurri zuzentzailea**. Izan ere, gehiegizkotzat jotzen zuen lokalaren isolamendu akustikoa hobetzeko neurria, 11. neurri zuzentzailea jada betetzen baitzuen; hau da, **telebista ozentasun handienaz jarrita ere**, soinu-immisioak ez zituen hondoko zaratak gainditzen ondoko etxebizitzetatik.

19. Aurreko alegazioak kontuan izanda, 2007ko irailaren 6ko foru-txosten berri baten bidez, hau adierazi zen:



*“Que la Actividad cumple con la medida correctora nº 11 de la Orden Foral 1303/2006, en cuanto a la emisión sonora en las viviendas colindantes.*

*Que si bien no cumple con la medida nº8, y teniendo en cuenta el punto anterior, se puede aplicar lo dispuesto en la Disposición Transitoria primera del D 171/85:*

*“.....*

*En el caso de que la adopción de alguna de dichas medidas correctoras sea técnicamente de difícil realización a juicio motivado del ayuntamiento, se podrá eximir de la referida medida correctora.*

*....”*

Horrenbestez, ondorioztatu zen maiatzaren 31ko 1303/2006 Foru Aginduak emandako neurri zuzentzaileak aldatzea **egokia zela, 171/1985 Dekretuan xedatutakoari jarraiki**. Hala ere, Busturiako Udalak iritzi zuen 8. neurri zuzentzailea teknikoki betetzeko zaila bazen, hura betetzetik salbuets zezakeela jarduera.

Hori dela eta, 2007ko azaroaren 7ko udal-ebazpen berri baten bidez, adierazi zen, tokiko gobernu-batzarraren aurreko txostenean xedatutakoaren arabera, aho batez hau aintzat hartzea erabaki zela: Foru Aginduaren 11. neurri zuzentzailea hartu dela, eta **8. neurri zuzentzaileari dagokionez, hura betetzetik salbuesten dela, betetzeko teknikoki zaila baita**. Erabaki hori kexaren sustatzaileari jakinarazi zitzaion, eta hark ez zuen erabaki horren kontrako ezer adierazi.

Horrez gainera, jasotako dokumentazioan, ohartarazi da, data horretatik aurrera, establezimendu horrek normaltasunez funtzionatu duela, eta Udalean ez zela kexa berririk jaso idatziz egon zitezkeen eragozpenengatik, 2012ko martxoaren 5era arte. Data horretatik aurrera, auzokoek behin eta berriz eskatu dute lokal horren gaueko itxiera-ordutegia eta sor ditzakeen gehieneko zaratak arautzen dituen araudia betetzeko.

20. Edonola ere, erreklamazio horren arabera, tokiko gobernu-batzarrak erabaki hau hartu zuen 2012ko martxoaren 14an, eta kexaren sustatzaileari jakinarazi zion:

*“Visto el escrito presentado por (...) sobre las molestias que le ocasiona el bar (...), situado en colindancia con su vivienda, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó informarle de los horarios que debe respetar dicho local y que, si ella observa que se incumplen, lo comuniqué a la Ertzaintza, ya que este Ayuntamiento no dispone de medios humanos para la vigilancia.”*

Informazio hori interesdunari helarazi ondoren, kontsistorioak emandako erantzunarekin ados ez zegoela adierazi zuen kexagileak, aurreko urteetan ere



zaratek sortutako eragozpenak izan baitziren, batez ere soinu-ekipamenduen gehiegizko bolumenengatik, bere ustez, telebistarenak ez zirelarik.

Edonola ere, adierazi zuen, azken ebazpenaren ondorioz, lokalak eragindako eragozpenak murriztu egin zirela. Horrenbestez, hasiera batean, iritzi genuen planteatutako auzia konpontzeko bidean zegoela.

21. Hala ere, duela gutxi, interesduna berriz jarri da harremanetan erakunde honekin, azpimarratuz jarduerak eragozpen larriak sortzen dituela, nabarmenduz jarduerak zarata-eragozpen larriak sortzen dituela.

Argudiatzen duenaren arabera, nahiz eta erreklamazio berriak aurkeztu, tokiko erakundeak ez du beste ikuskatzerik egin eta ez du itxiera-ordutegia kontrolatzen, irizten baitu jarduerak eskatutako betekizun teknikoak betetzen dituela.

Kontuan izanda aurrekari horiek eta Busturiako Udalak bidalitako informazioa, ebazpen hau egitea egokitzat jo dugu, hauen arabera:

#### Gogoetak

1. Gure esku-hartzearen helburua da aztertzea Busturiako Udalak zer jarduketa egin dituen establezimendu horrek, ingurumenaren arloko legedian eskatutako betekizunak ez betetzean, eragindako eragozpenak saihesteko.

Kaltetutako auzokoek behin eta berriz aurkeztutako salaketan arabera, ez da egiaztatu Udalak gai horren inguruko beste erabakirik hartu duenik.

2. Ingurumena babestea ez da sortutako kalteak konpontzea soilik, baizik eta bere baitan hartu behar du ingurumena osatzen duten elementuak zaintzea ere. Hori dela eta, kontuan izan behar da herri-administrazioek jarduera sailkatuen ingurumen-legeria kontrolatzeko eta egokitzeko esku hartu behar izatea ez dela eskumen-kontu hutsa, baizik eta antolamendu juridikoak interes orokorra defendatzeko esleitzen dizkien ahalmen publikoak gauzatzea dakarrela berekin.
3. Jardueren lizentziek behin betiko lotura bat sortzen dute, interes publikoa babestea helburu duena, baimendutako jarduera gauzatzean sor daitezkeen gorabeherei aurre egiteko.

Eskakizun horiek eskumena ematen diote administrazioari, proportzionaltasun egokiaren bidez, baimendutako jardueran esku hartu ahal izan dezan, jarduera egiten dutenei neurri zuzentzaileak eta jarduerak ondo funtzionatzen duela bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren egokitzapen-neurriak ezarriz, baita ofizioz ere.



Zentzu horretan, argi geratu behar du jarduerak beti bete behar duela interes publikoko eskakizunetara egokitzeko baldintza inplizitua.

4. Ingurumen-kontrolako araudia saiaturen da jarduera sailkatuen funtzionamenduak kalte ditzakeen interes kontrajarriak bateratzen, neurri eta muga multzo bat hartzeko prozedura jakin baten izapidetzeari jarduera horiek ezarri, eragin ditzaketen kalteak saihesteko.
5. Eusko Jaurlaritzaren 171/1985 Dekretuak, ekainaren 11koak, etxebizitzetarako hiri-lurretan jartzekoak diren Ekintzapide nekagarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuekin erabili beharreko arau teknikoak ontzat ematen dituenak, hau ezartzen du zioen azalpenean: foru-erakundeek eskumena dute, jarduera sailkatuen funtzionamenduak kalte ditzakeen ondasunak eta pertsonak babesteko osagarritzat jotzen dituzten behar adina neurri zuzentzaile adierazteko.
6. Instalazioaren funtzionamenduaren baimena eman ondoren neurri zuzentzaileak sartzeko betebeharra **Xedapen Iragankorretako lehenengoan** dago jasota, non berariaz hau esaten den:

*“Dekreto honen eraginpean gelditu daitezten iharduneango ekintzapideek sei hilabeteko epea izango dute eraikuntzen egitura-aldakuntzarik ekar ez dezaten onbideratze-neurriak egiteratzeko. Eraikuntzen egokitze-aldaketa ekar dezaten onbideratze-neurriak egiteratzeko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedinetik hasi eta **hamabi hilabeteko** epea izango dute.*

**Onbideratze-neurri hoietakoren bat egiteratzea Udalaren zio eta guztizko iritziz teknikaren aldetik zaila izatea gertatuz gero, onbideratze-neurria egiteratu beharretik iare utzi ahal izango da.**

*Hala ere, jaurgoduna aldatzea edo ekintzapidea haundiagotzea edo aldatzea gertatuz gero, teknikazko arau hauetan esaten diren onbideratze-neurriak egiteratu-araziko zaizkio.”*

7. Aitzitik, aurreko aurrekarietan idatzita jaso den bezala, (...) tabernako jolas-jarduerak hasieratik **ez ditu betetzen kalifikazio-txostenean ezarritako neurri zuzentzaileak**, nahiz eta derrigorrez betetzekoak izan.

Edonola ere, kaltetutako auzokoek aurkeztutako lehen erreklamazioen ondoren, Busturiako Udalak lokalean neurri zuzentzaile batzuk abian jartzea eta jarduera eguneratzeko hainbat proiektu aurkeztea eskatu badu ere, ez du eraginkortasunez bermatu jarduera aipatu 171/1985 Dekretuan, ekainaren 11koan, ezarritako baldintzetara egokitzen denik. Horrez gainera, une horretan ez zegoen Dekretuko betekizun teknikoak betetzetik salbuesten zuen txosten arrazoiturik.





Hala ere, Busturiako Udalak ez du inolaz ere eskatu dekretu horretan zehaztutako betekizun teknikoak betetzeko, batez ere, isolamendu egoki batez hornitzeari buruzkoak, kaltetutako auzokoei eragin dakizkiekeen behin-behineko kalteak murrizteko, egiteko zailegiak direla irizteagatik.

Udalak administrazio-izapideak prestatu ditu, ingurumen-kontrol hori gauzatzeko. Ditugun datuetatik ondorioztatzen denaren arabera, urte hauetan jardueran hainbat titulartasun-aldaketa gertatu dira, eta lokalean hainbat erreforma ere egin dira, aurkeztutako eguneratze-proiektuen ondorioz.

8. 171/1985 Dekretuak, ekainaren 11koak, onartzen du betekizun hauek bete behar direla, jarduera mota horiek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko: Batetik, **intsonorizazio-proiektu bat aurkeztea**, eta bestetik, **ezarritako soinu-immisioko parametroak ez gainditzea**.

Hala, foro-aldundiak ere horrela irizten du, establezimendu honi baldintza tekniko hau bete behar duela eskatzen dionean: aireko zaratarekiko isolamendu akustikoko (Ia) 65 dB-ko gutxieneko maila bat izatea, lokalean sortzen den soinu-presioak lehen ezarritako soinu-parametroak gaindi ez ditzaten aireko bidetik nahiz egiturazko bidetik, hau da, 171/1985 Dekretuak, ekainaren 11koak, Eusko Jaurlaritzarenak, ezarritako parametroak ez gainditzeko.

9. Foru-zerbitzu teknikoek egindako egiaztapenean, egiaztatu zen lokal horrek aireko zaratekiko (Ia) 53 dB-ko isolamendu akustikoa duela. Maila hori azken kalifikazio-txostenean ezarritako (Ia) 65 dB-etatik oso urrun dago, eta baita Bizkaiko Foru Aldundiak 2006ko maiatzaren 31n emandako neurri zuzentzaileetatik ere.

Horrez gainera, ez dirudi jardueran instalatutako elementu zuzentzaileek edo, hala badagokio, lokalean egindako erreformek sortutako zarataren eragozpen larriak inolaz konpondu dituztenik. Horren adierazgarri dira kontsistorioan behin eta berriz aurkeztu diren salaketak eta, gerora, auzokoak erakunde honetara behin baino gehiagotan etorri izana, pairatzen dituzten kalte larriak azpimarratuz.

10. Bestalde, hau zehaztu behar dugu: aldez aurretik baimendutako soinu-ekipamenduetan potentzia-mugatzaileak instalatzeak ez du bermatzen berak bakarrik lehen ezarritako soinu-mailak beteko direnik, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan aurreikusitakoari jarraiki derrigorrez betetzeko neurri bat bada ere.

Zentzu horretan, zehaztu behar da establezimendu mota horretan ez dela telebista bakarrik zarataren eragozpenak sor ditzakeen iturri bakarra, baizik eta jarduera horretako beste berezko soinu-iturri batzuek ere kalte larriak eragin ditzaketela, dirudienez, kasu honetan gertatzen den bezala; hala nola,



bezeroen arteko elkarrizketek, materiala herrestan eramateak eta lokal horietan funtzionatzeko instalatzen diren askotariko makinariak.

11. Beraz, 171/1985 Dekretuak xedatzen duenaren arabera, jarduera mota horretatik eratorritako kalteak konponduta geratuko dira, baldin eta egiaztatzen bada lokalaren isolamendu akustikoa bat datorrela erregelamenduaren bidez ezarritako betekizunekin, eta egiaztatzen bada kalifikazio-txostenean aldeztatik aurretik baimendutako soinu-iturriak behar bezala finkatuta eta zigilatuta daudela.
12. Lehen ezarritako soinu-mailak errespetatzen badira ere (dirudenez, kasu honetan hori horrela ez bada ere), ekipo horietan instalatutako potentzia-mugatzailleak behar bezala kontrolatzea eta egiaztatzea eska daiteke, behin-behineko manipulazioak eta ordezkatzeko saihestu ahal izateko.

Hori dela eta, kaltetutako auzokoek beste salaketa batzuk jartzen badituzte, erabakigarria da beharrezko neurketak eta egiaztapenak egitea, lokal horien ondoko etxebizitzetan iritsitako immisio-balioak errespetatzen direla bermatzeko. Jarduera bete-betean funtzionatzen ari denean egin behar dira neurketa horiek, ahal dela; batez ere, gaueko ordutegian egiten direnean, eta are gehiago, jarduerak behar adina isolamendu-maila ez duenean.

Bestela, zaila izango da bermatzea jardueraren funtzionamenduak soinu-immisioko mailak ez dituela gainditzen (maila horiek betetzea jarduera instalatzeko baldintza bat izan zen eta horiek betetzeagatik baimendu zen jarduera).

13. Horrez gainera, kaltetutako auzokoek **lokaleko musikak** eragindako eragozpenak nabarmentzen dituztenez, kontuan izan behar da jarduera mota horiek inolaz ere ezin dutela jarri kalifikatu zuen memorian adierazita ez dagoen beste elementurik edo ekipamendu osagarrikerik edo, hala badagokio, instalatzea legezkatzen den arte. Hau da, establezimenduari jarduera handitzeko baimena ematen zaion arte -baimen horrek berariaz baimenduko du musika-ekipamendu baten instalazioa-, eta egiaztatzen den arte lokalari ezarritako neurri zuzentzaile berriak eraginkorrak direla, batez ere isolamendu akustikoko mailari dagokionez, eta aldeztatik aurretik baimendutako soinu-mailak betetzen diren arte.
14. Bestalde, 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, Euskal Herriko ingurunea babesteko Lege Orokorrak, agintzen du jarduera mota horiek administrazio-lizentziaren araubidera edo aurretiko jakinarazpenaren araubidera lotuta daudela, abian jartzeko beharrezko betekizun gisa.

Arau horrek baimen bikoitz bat ezartzen du jarduera mota horientzat: batetik, lehen jardueren lizentzia bat, non ingurumen-kalitate egoki bat bermatuko duten neurri zuzentzaileak finkatzen diren; eta bestetik, sustatzailearen



ondoko jakinarazpen bat, neurri horiek eraginkortasunez betetzen direla ziurtatzen duena.

Hala, 59. artikulua hau agintzen du: foru-erakundeek jarduera legeztatzeko prozeduran edo, hala badagokio, jarduera handitu ondoren, eman behar duten kalifikazio-txostena **lotestea dela** udal-agintarientzat, bai jardueren lizentzia ematearen aurkakoa denean, bai neurri zuzentzaileak ezartzeko betebeharra zehazten duenean.

Era berean, 59. bis artikulua hau zehazten du: lizentziak ondorerik gabe geratuko dira, baldin eta lizentzia hori eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen ez badituzte edo, hala badagokio, **ofizioz aldatu beharko dira**, baldin eta egiaztatzen bada ezarritako neurri zuzentzaileak ez direla nahikoak, ingurumenari, pertsoneri edo beren ondasunei eragin dakiekeen kaltearekin lotuta.

15. Horrenbestez, ingurumen-kontrola ez da mugatzen jardueraren hasieran emandako baimenari, baizik eta egoki garatzeko, beharrezkoa da jarraipen bat egitea eta aurretik zehaztutako kalitate-helburuen inguruko emaitza bat eskatzea.

Kexa honetan izaten diren bezalako gertaerak saiheste aldera, 64. artikuluan instalazio-lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak edo, hala badagokio, instalazioak egoki funtzionatzen dutela bermatzeko, eta hirugarrengoei eragozpenak eta arriskuak saihesteko ezar zitezkeen neurriak kontrolatzeko eta ikuskatzeko funtzioak esleitzen zaizkie tokiko administrazioei. Edonola ere, alkateak adierazitako akatsak epe jakin batean zuzentzeko eskatuko dio jardueraren titularrari eta, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik, epe horrek ezin izango du 6 hilabetekoa baino luzeagoa izan.

16. Hori dela eta, azaldutako aurrekarien arabera, erakunde honek ondorioztatu du Busturiako Udalak ez dituela esleitutako ikuskatzeko eta zigortzeko ahalmenak erabili, ingurumenaren arloko antolamendu juridikoa betearazteko eta interes orokorra defendatzeko.

Are gehiago, kasu honetan gertatu diren egoerak ikusita, gero eta nabarmenago uste dugu udalak esku ez hartzeak benetako eragozpenak sortzen dizkiela eremuko auzokoei eta, batez ere, kexaren sustatzaileari.

17. Tokiko erakundeek inolaz ere ezin dute alden du ingurumena kalte dezaketen egoeretatik, pertsoneri edo ondasunei nolabaiteko kalteak egitearen zain, esku hartu behar dute.

Beharrezkoa da Udalaren esku-hartzea, arrisku-egoera amaitu dadin, beharrezko neurri zuzentzaileak hartuz eta zuzenean arduradunak direnei neurri horiek hartzeko aginduz.



18. Bistakoa da establezimendu mota horiek, baldin eta beren jarduera ez bada araudi tekniko-juridiko egoki baten mendean jartzen, gatazka larria sor dezaketela eta, egiatan, sortzen dutela beren titularren negozioa jardueraren barruan egiteko interes partikularren eta interes publiko orokorraren artean. Hau da, establezimendu horien inguruan bizi diren auzokoek intimitaterako eta segurtasunerako eskubidea dute, eta ezin da beren lasaitasuna aztoratu, lokal horiek eragindako eragozpenak direla eta.

19. Uler dezakegu establezimendu bateko isolamendu akustikoko arazoak konpontzen diren bitartean, eta zigortzeko espedienteak hasteari kalterik egin gabe, salbuespenezko beste neurri batzuk hartzea, ondoko higiezinetakoa auzokoak ez eragozteko helburua dutenak.

Jakin badakigu neurri mota horiek jarduera mota horiek egiten dituzten pertsonentzako proportzionaltasun teknikoko eta ekonomikoko irizpideen arabera hartu behar direla. Hala ere, behin-behinerako hartu diren edo hartu beharko lirartekeen erabakiak behin betikoak izan daitezke, kasu honetan gertatu den bezala, eta gainera, are larriagoa dena, erabaki horiek ez dute balio izan auzokoek indarreko legediak ezarritako mugak baino soinu-immisioko maila handiagoak pairatu behar izana saihesteko.

20. Antolamendu juridikoak prebenitzeko eta, hala badagokio, hirugarrengeoi eragozpenak edo kalteak eragin diezazkieketen soinu-immisioak prebenitzeko eta, hala badagokio, konpontzeko esleitu dion ahalmena-funtzioa ezinbestean erabili behar du organo publiko eskudunak.

Ez dugu ukatzen instalazioak zaintzeko eta kontrolatzeko funtzioak betetzea zaila denik. Zentzu horretan, irizten dugu oreka lortu behar dela merkataritza-eta zerbitzu-jarduera arrakastatsu baten gauzatzearen eta auzokoak dituzten eskubideen artean, alegia, atseginerako eskubidea eta kalitateko ingurumena izateko eskubidea, soinu-nahasmendurik gabekoa.

21. Beharrezkoa da Busturiako Udalak beharrezko baliabideak eta prozedurak biltzea, establezimendu horietatik gertu bizi diren pertsonen eskubideak - intimitaterako eskubidea, etxearen segurtasunerako eta bortxaezintasunerako eskubidea- gauzatzea lortzeko. Izan ere, auzokoek ezin dute egon bulkatuta merkataritza-establezimendu horrek gauzatutako eragozpenen ondorioz aztoratuta egotera.

22. Azkenik, gogora ekarri behar da jarduerak 14/2014 Dekretuak, otsailaren 11koak, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen Dekretua hirugarren aldiz aldatzen duenak, ezarritako **itxiera-orduak** bete behar ditu.



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, erakunde hau sortu eta arautzekoak, 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### GOMENDIOA

3/1998 Legearen, otsailaren 27koaren, Euskal Herriko ingurumena zaintzeko lege orokorraren, 64. artikuluari jarraiki, Busturiako Udalak **beharrezko ikuskatze teknikoak** egin beharko ditu, jarduerak sortutako zaraten eta bibrazioen egoera jakina zein den jakiteko.

Lortutako emaitzak oinarri hartuta, Busturiako Udalak, hala badagokio, jardueraren funtzionamendua ingurumenaren arloko legezkoatasunera berriz bideratzeko neurri komenigarriak hartu beharko ditu; batez ere hauei dagokienez: **lokalaren isolamendu akustikoa, lokalean funtzionatzen ari diren soinu-ekipamenduak eta itxiera-ordutegia betetzea**. Hori guztia, kaltetutako auzokoak pairatzen dituen behin-behineko eragozpenei behin betiko irtenbidea bilatzeko.